



ARABAKO EKONOMIA: Egoeraren adierazleak



2020ko Uztaila

www.araba.eus



AURKIBIDEA

1. EKONOMIA INGURUNEA	3
2. ARABAKO EKONOMIA	7
2.1. KANPO MERKATARITZA	8
2.2. BENETAKO BARNE PRODUKTU GORDINA	9
2.3. INDUSTRIA EKOIZPENA	10
2.4. INDUSTRIA EGOERA	11
2.5. ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA	13
3. LABURPEN TAULA. ADIERAZLE NAGUSIAK	14



EKONOMIA INGURUNEA

- ELGaren arabera, aurreikuspen ekonomikoei buruzko ekaineko txostenean dioenez, munduko ekonomiak uzkurdura handia izango du 2020an, eta ekonomia guztiak atzeraldian egongo dira. Horren ondorioz, BPG globala % 6,1 eta % 7,6 artean jaitsiko da, aintzat harturik hasitako pixkanaka-pixkanakako susperraldiak gorabehera handirik gabe aurrera jarraitzen duen edo, bestela, aurrerago COVID-19 izurritearen berragertze esanguratsua gertatzen den.
- Aurreikuspen makroekonomikoak eguneratzerakoan, erakunde horrek balizko bi ingurumari proposatzen ditu eta biei ere aukera berdinak ematen dizkie: bata, birusak atzera egiten jarraitu eta eta kontrolpean dagoeneko, eta, bestea, 2020an, kutsatze azkarreko bigarren bolada bat sortzen denekoa.
- Iragarpen berrien arabera, ELGak aurreikusten du jarduera “herrialde guztietan” apalduko dela, eta pandemia berriro agertuko balitz, munduko BPGd % 7,6 jaitsiko litzateke 2020an; 2021ean, berriz, % 2,8ko hazkundera izango luke; bigarren kutsatze boladarik geratu ezean, munduko ekonomiak % 6 egingo luke atzera aurten, eta 2021ean % 5,2 berreskuratuko luke.



EKONOMIA INGURUNEA

- ELGAko herrialdeei dagokienez, Espainiako ekonomia kaltetuenetakoa iznago da COVID-19ak sorrarazitako krisiaren ondorioz, aurten, Barne Produktu Gordina %11,1 jaitsiko baita edo, bestela, %14,4, izurritearen berragerpena jazoko balitz.
- 2021ean, ELGAk %7,5eko hazkundera aurreikusi du egoerarik onenean, eta %5ekoa datozen hilabeteetan izurriteak berriro okerrera egingo balu. Horrek esan nahi du 2021. urtearen amaieran, Espainiako BPGd 2019aren amaieran zegoena, hau da, krisia hasi aurretik, baino ehuneko 4 eta 8 puntu artean txikiagoa izango dela.
- Horrek guztiak zuzeneko eragina izango du laneko merkatuan. Egoerarik onenean, langabezia tasa 2019ko %14,1etik %19,2ra igoko da 2020an, eta 2020an, berriz, apur bat jaitsiko da (%18,7ra). Egoera txarrenaren arabera, langabezia %20,1era igoko litzateke aurten, eta hurrengo urtean ere %21,9ra igoko litzateke.
- Kontu publikoek ere eraginik pairatuko dute: defizita BPGd-ren %10,3raino igoko da aurten, ingurumaririk aldekoenean, eta zorra BPGd-ren %117,8ra haziko da, baina izurritearen beste agerraldi bat etorriko balitz, %12,5era eta %129,5era igo daiteke, hurrenez hurren.



EKONOMIA INGURUNEA

- Espainiako Gobernuak ekainean argitaratutako azken hazkunde aurreikuspenen arabera, BPGa % 9,2 jaitsiko da aurten, eta % 6,8 igoko da datorren urtean.
- Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera, Espainiako ekonomiak BPGd-ren % 4,1eko urtetik urterako jaitsiera izan zuen 2020ko lehen hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan % 1,8ko jaitsieraren aldean, eta 2019ko lehen hiruhileko % 2,2ko jaitsieraren aldean.
- Euskal ekonomiaren BPGa, bestalde, Eustaten azken aurrerapenaren arabera, % 3,2 jaitsi zen 2019ko lehen hiruhilekoan, 2019ko hiruhileko berarekin alderatuta; aurreko hiruhilekoan, berriz, % 2,2 hazi zen, eta 2019ko lehen hiruhilekoan % 2,2 ere hazi zen.
- Eusko Jaurlaritzak ekainean eguneratu du 2020-2021 aldiko euskal ekonomiaren egoera makroekonomikoa. 2020ko hazkunde aurreikuspena urteko batez bestekoaren -% 8,7raino jaitsi da. 2021ean, jarduera ekonomikoak gora egingo du, eta horren hazkunde tasa % 6,7koa izango da. Hiruhilekoen bilakaerak erakusten du 2020ko bigarren hiruhilekoan beherakada handia izan dela, eta hortik aurrera, hiruhilekoen arteko tasa positiboak espero dira. Hala ere, pandemiaren aurreko BPGd-ren mailak oraindik ere ez dira lortuko aurreikusitako epearen amaieran.



EKONOMIA INGURUNEA

- Enpleguari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren egungo aurreikuspenek, 2020an, % 7,0ko beherakada begiz jo dute; 2021ean, aldiz, urteko batez besteko aldakuntza % 5,4koa izango da. Tasa horien arabera, 2020an lanaldi osoko 68.000 lanpostu inguru galduko dira, eta 48.000 lanpostu inguru sortuko dira 2021ean. Horrek ez du esan nahi aurten lana galduko duten edo datorren urtean lana lortuko duten pertsonen kopurua hori izango denik; kopuruok enpleguaren neurri gisa ulertu behar dira (lanaldi osoko urteko lanaldietan bildutako lanorduen kopurua), hain zuzen ere, 2020an egingo ez direnak 2019aren aldean edo 2021ean beharko direnak 2020ko ekitaldikoaren aldean.



ARABAKO EKONOMIA

- **Koronabirusak sorrarazitako krisiak eragin zuzena izan du kanpoko merkataritzan, eta arlo hori dugu Arabako industria sarearen indarguneetako bat. Urteko lehen lau hilabeteetan, Arabako esportazioak % 22,6 jaitsi dira, iazko aldi berdinen aldean.**
- **Arabako industria-jarduerari dagokionez, esan behar da, 2020an, esportazioen bilakaeraren antzekoa izan duela. Industria Ekoizpenaren Indizea dela eta argitaratu den azken datuak erakusten du urteko lehen bost hilabeteetan % 19,7ko jaitsiera metatua izan duela indize horrek.**
- **COVID-19aren pandemiari aurre egiteko helburuz, martxoko bigarren hamabostalditik aurrera hartutako neurrien ondorioz, EUSTATen datuen arabera, Arabako BPGd % 3,3 murriztu da urteko lehen hiruhilekoan, 2019ko lehen hiruhilekoaren aldean.**
- **Ekainean, 24.343 langabetu gehiago egon da, maiatzean baino 561 pertsona gehiago eta duela urtebete baino 5.710 pertsona gehiago.**
- **Ekainean ere balio negatiboa izan zuen inflazio tasak, hain zuzen ere, - % 0,2koa.**



Kanpo Merkataritza


(Urtearteko bariazio tasa)

	2018	2019 (*)	2020ko metatua (*)	Azken datua (*)	Data
Esportazioak	2,5	-3,1	-22,6	-69,2	20-apirila
Inportazioak	4,7	-1,7	-18,9	-55,3	20-apirila
Estaldura Indizea (%)	173,2	170,9	156,4	110,5	20-apirila

Merkataritza Idazkaritzaren behin-behineko datuen arabera, Arabako esportazioek % 22,6ko jaitsiera metatua izan dute urteko lehen lau hilabeteetan, eta inportazioek % 18,9koa. Estaldura tasa 156,4ra jaitsi da.

Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa, Aduanetako Idazkaritza


(*) Behin-behinekoa





Benetako Barne Produktu Gordina

lazko lehen hiruhilekoaren aldean, Arabako BPGd % 3,3 jaitsi da 2020ko lehen hiruhilekoan; aurreko hiruhilekoan, berriz, % 2,4 hazi zen, eta 2019ko lehen hiruhilekoan, % 2,0.



Iturria: EUSTAT

(*) behin-behinekoa




Industria Ekoizpena

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak alarma egoera ezarri zuen COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko helburuz. Ildo horretan hartutako salbuespenezko neurrien ondorioz, industria enpresa gehienek jarduera eten zuten, osorik edo zati batean, martxoaren erdialdetik aurrera.

Gertakari horren eraginez, 2020ko lehen bost hilabeteetako balantzean, Arabako Industria Ekoizpenaren Indizeak % 19,7ko beherakada metatua izan zuen. Hala ere, maiatzean izandako jaitsiera (% 30,2koa) joan den apirilean izandakoa (% 48,6koa) baino nabarmen txikiagoa da.

Maiatza eta aurreko hilabetea, hau da, 2020ko apirila, alderatuta, Arabako industria ekoizpenak % 27 egin du gora, urtaroaren ondorioak zuzendu ondoren.






Industriaren Egoera

Arabako industria enpresen % 69k jaitsiera aurreikusi dute urteko bigarren hiruhilekoan, COVID-19aren eraginez, ohiko ekoizpen jarduera baino askoz txikiagoa izan duen lehen hiruhilekoaren ondotik. Hamar enpresatik seik diote martxoaren amaieran eskari zorroa murriztu dela, eta ez da aldaketa handiegirik egon fabrikatutako produktuen izakinetan. Aurrekoaren ondorioz, Industria Konfiantzaren Adierazleak beherakada handiena izan du Merkataritza eta Industria Ganberak egiten duen industriaren egoerari buruzko inkesta hasi zenetik. Hala, 2009tik izandako erregistrorik txarrena izan da, 39 puntuko jaitsierarekin.


Jakina denez, epe laburreko aurreikuspenek salmenten, esportazioen, eskaera zorroaren eta ekoizpenaren beherakada handiagoa islatzen dute. Gainera, Arabako industria enpresen % 63k iragarri dute plantilla murriztuko dutela.



Iturria: Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera



(BPG ETA IEA) BILAKAERA



(Urtearteko bariazio tasa)

	2017				2018				2019				2020
	I	II	III	IV	I	II	III	IV	I	II	III	IV	I
ARABA													
BPG	2,5	2,3	1,9	2,0	2,7	3,0	2,9	2,4	2,0	1,8	1,6	2,4	-3,3
IEA	6,2	5,8	2,3	6,0	2,4	1,2	2,5	-8,5	-3,1	-3,5	-4,4	4,5	-7,2
EAE													
BPG	2,8	2,7	2,8	2,8	3,2	3,2	3,0	2,6	2,2	2,2	2,1	2,2	-3,2
IEA	3,8	4,4	7,0	7,8	4,6	3,3	3,5	-2,4	1,0	1,4	1,4	2,6	-5,1
ESTATUA													
BPG	2,5	3,2	2,8	3,0	2,8	2,3	2,2	2,1	2,2	2,0	1,9	1,8	-4,1
IEA	1,9	2,8	2,8	5,2	2,7	0,9	0,3	-2,8	-0,1	1,7	1,0	0,3	-6,4


Iturria: Eustat eta INE. IEA: 2015eko oinarria . BPG: 2015eko oinarria . SEC 2010



Erregistratutako Langabezia

Langabeziak gora egin du berriro Araban ekainean, 561 langabe gehiago dagoela (% 2,36). Hazkunde horren ondorioz, langabeen guztizko kopurua 24.343koa da. Aurreko urtearekin alderatuta, langabezia % 30,64 igo da.

Jarduera arloka, aurreko hilabetearekin alderatuta, langabetuen kopurua igo egin da Araban, industrian eta eraikuntzan izan ezik. Iazko hilabete berarekin alderatuta, langabeziak gora egin du sektore guztietan, batez ere, industrian eta zerbitzuetan.





Laburpen Taula. Adierazle Nagusiak

(Urtearteko bariazio tasa) (%)

	2018	2019	2020ko metatua	Azken datua	Data
BPG					
Estatua	2,4	2,0		-4,1	20-I Hi
EAE	3,0	2,2		-3,2	20-I Hi
Araba	2,8	2,0		-3,3	20-I Hi
IEA					
Estatua	0,3	0,7	-15,6	-24,5	20-maiatza
EAE	2,0	1,8	-16,5	-27,8	20-maiatza
Araba	-0,5	-1,9	-19,7	-30,2	20-maiatza
KPI					
Estatua	1,2	0,8		-0,3	20-ekaina
EAE	1,0	1,2		-0,2	20-ekaina
Araba	0,8	1,1		-0,2	20-ekaina
ESPORTAZIOAK					
Estatua	3,3	1,7	-12,4	-39,3	20-apirila
EAE	6,9	-1,5	-21,4	-53,2	20-apirila
Araba	2,5	-3,1	-22,6	-69,2	20-apirila
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA					
Estatua	-6,2	-1,2		28,1	20-ekaina
EAE	-6,2	-4,6		29,7	20-ekaina
Araba	-4,1	-5,4		30,6	20-ekaina

Datu absolutuak (%)

LANGABEZI TASA EPA Inkesta (INE)					
Estatua	15,3	14,1		14,4	20-I Hi
EAE	10,0	9,2		8,7	20-I Hi
Araba	9,1	8,3		5,6	20-I Hi
LANGABEZI TASA BJA Inkesta (EUSTAT)					
EAE	10,5	9,8		9,9	20-I Hi
Araba	11,2	10,7		9,8	20-I Hi